

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

2000ko irailaren 28ko Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan animalia hozkariak zaindu eta behatzeko prozedura arautzen duena.

SARRERA

1. artikulua.-
2. artikulua.-
3. artikulua.-
4. artikulua.-
5. artikulua.-
6. artikulua.-
7. artikulua.-
8. artikulua.-

I. ERANSKINA

II. ERANSKINA

BOG 19 Urria 2000

Ikusi, 5/2005 Foru Dekretua [GIPUZKOA], urtarrilaren 25ekoa, albitari pribatuei animalia txikientzat gaitutako albitariaren kalifikazioa emateko prozedura arautzen duena («G.A.O.» otsailak 3).

Azken bederlatzi urteetan amorruren aurka ez da beharrezkoa izan nahitaezko txertorik agintzea eta txertaketa kanpaina ofizialik egitea, gaixotasun horrek ez baitie txakurrei nahiz katuei batere eragin. Euskal Autonomi Erkidegoan gutxienez azken hogeitun urteotan ez da epizootia horren kasurik ezagutu.

Hala ere, gaixotasuna duen txakurrak edo katuak hozkatuz gero, gizakiak beregana dezakeen gaixotasuna dugu amorrua. Eta Industria, Nekazaritza eta Arrantzako Kontseilariaren 1996ko otsailaren 15eko Arauak, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurren amorruari aurre egiteko jarduketak arautzen dituenak, organo eskudunak txakurrak zaintzen, kontrolatzen, zentsatzen, identifikatzen eta erregistratzen jarraitzea komeni dela dio, zoonosis horren broteren bat agertuz gero berehala erantzun ahal izateko eta indarrean dagoen araudian aurreikusitako neurriak har daitezkeen horrela.

1955eko otsailaren 4an onartu zen Epizootien Erregelamenduak amorruren gaineko osasun neurri bereziak ezarri zituen.

Gobernazio Ministeritzako 1976ko ekainaren 14ko Aginduak osasun eta higie neurri buruzko arauak ezartzen ditu. Bertan, pertsona bati hozka egin dion txakurra albaitaritzara eraman eta hamalau egunez behaketan edukiko dela esaten da.

Gipuzkoan egun ez dago pertsonen hozka egin dieten txakurren eta katuen albaiteri behaketa ondo egingo dela bermatzen duen administrazio prozedurarik.

Euskadiko Animalien Babeserako 6/1993 Legeko 8.2 artikuluan esaten denez, «animaliaren jabea izango da animaliak sor ditzakeen kalteen, eragozpenen eta gogainduren erantzulea», eta lege bereko 11.2 artikuluari jarraiki, «gizakiren bati eraso egin dioten animaliak, behatuak izan daitezten, barneratu edo/eta isolatzeko agindua eman beharko da». Beraz, animaliek pertsonak erasotzen dituzten kasuetarako, beharrezkoa iritzi zaigu ondorengo jarduketa arauak onartzea.

Horren indarrez, kontuan hartuta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta Erkidegoko Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko Harremanak arautzen dituen 1983ko azaroaren 25eko 27/1983 Legeko 7.b.2 artikularen arabera organo horiei dagokiela animalien osasun esparruan Autonomia Erkidego Osorako Erakundeek erabakitako arauak garatu eta betearaztea. Hortaz,

XEDATU DUT

1. artikulua.-

Pertsonaren bati hozka egin dion animalia gutxienez 14 egunez sanitate behaketa eta zaintzapean eduki beharko da.

2. artikulua.-

Animalia hozkariaren jabeak edo edukitzaileak behartuta daude animalia erasotzailearen datuak ematera, bai eraso jasan duenari edo horren legezko ordezkariari eta bai informazioa eskatu duten agintari eskudunei.

3. artikulua.-

Aipatutako zaintza eta behaketa prozedura aurrera eramateko, ezinbestekoa izango da hozkada jasan duen pertsonak edota bere ordezkariak salaketa jartzea, animalia bizi den herriko udaletxean edo, bestela, animaliak hozka egin dion herriko udaletxean. Hori izango da hozkadura egiaztatzeko modu bakarra.

Salaketa jasoko duen udaletxearen erantzukizuna da animalien jabea aurkitzea eta I. Eranskinaren arabera salaketa inprimakia betetzea, orri laukoitzean. Inprimakiaren kopiak salatzailearentzat, Udalarentzat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Abeltzaintza Zerbitzuarentzat eta animalia zaindu eta behatzeaz arduratuko den albaitariarentzat izango dira. Era berean, Udaletxea arduratuko da animalia hozkariaren zaintza eta behaketa aurrera eramateaz eta koordinatzeaz.

4. artikulua.-

Jabeak aukera dezake bere animalia zaindu eta behatuko duen albaitaria, betiere azken hau lanean ari bada. Animalia gutxienez 14 egunez edukiko da zaintzapean eta gutxienez 1, 7 eta 14. egunetan albaitariak animalia aztertuko du. Zaintza aldiak dirauen bitartean animalia udal agintaritzaren tutoretzapean egongo da edo, bestela, jabea bera bada animaliaz arduratzen dena, etxe barruan edukiko du eta edozein arrazoigatik animalia kanpora ateratzekotan, memento oro muturrekoa jantzita duela egingo du. Jabeari bere animaliak albaitariaren zaintzapean egon behar duela jakinarazten zaion eguna hartuko da zaintza aldiaren lehen eguntzat.

Nolabaiteko susmoa badago animaliak amorrua izan dezakeela, albaitariak segituan jakinaraziko die abeltzaintza zerbitzuari eta salaketa jaso zuen Udalari; eta azken honek, berehala jarriko ditu jakinaren gainean hozkada jasan zuen pertsona eta pertsona hori aztertu zuen osasun zentroa.

Behin zaintza eta behaketa aldia amaituta, animaliak arazorik ez duela ikusten bada, albaitariak Animalia Hozkariei buruzko Albaitari Txostena beteko du, II. Eranskinari jarraiki. Ondoren, Foru Aldundiko Abeltzaintza Zerbitzuari txosten bat bidaliko dio, eta beste bat, animalien jabeari. Animalien jabeak, bi eguneko epea izango du txosten hori salaketa jarri zen Udaletxean aurkezteko.

Udalak albaitariaren behaketaren emaitzak jakinaraziko dizkie hozkada jasan zuen pertsonari eta memento hartan bera aztertu zuen osasun zentroari.

5. artikulua.-

Animalia hozkariaren jabeak ordaindu beharko du behatu eta zaintzeko prozeduraren kostua.

6. artikulua.-

Jabe ezagunik gabeko animalien kasuan, salaketa jaso duen Udala izango da animalia hozkaria behaketa eta zaintzapean edukitzeaz arduratuko dena, betiere Euskadiko Animalien Babeserako Legeak aurreikusten duen atxikipen epea errespetatuz.

7. artikulua.-

Animalia hozkari guztiak ondoko prezeduretan sartuko dira: «Animalia arriskutsu» izendatzekoan, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzea erregulatzen duen 2000ko apirilaren 4ko 66/2000 Dekretuari jarraiki, eta «Animalia potentzialki arriskutsu» izendatzekoan, Animalia Potentzialki Arriskutsuak edukitzearen Erregimen Juridikoari buruzko 1999ko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arabera.

8. artikulua.-

Euskadiko Animalien Babeserako Legearen 27.2.c artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, arau-hauste larriak izango dira foru agindu honetan zehaztutako nahitaezko tratamendua oztopatzen duten hauek:

1. Behin zaintza eta behaketa aldia bukatuta, 2 eguneko epean animalia jabeak Animalia Hozkariei buruzko Albaitari Txostena (II.

Eranskina) udaletxean ez aurkeztea.

2. Animalia hozkariaren jabeak edo edukitzaileak animalia erasotzailearen daturik ez ematea, hala eraso jasan duenari edo horren legezko ordezkariari nola informazioa eskatu duten agintari eskudunei.

3. Udalak animalia hozkaria behaketa eta zaintzapean jartzeko beharra jabeari adierazi ondoren, honek jaramonik ez egitea.

4. Jabe jakinik ez duen animalia hozkaria behaketa eta zaintzapean ez jartzea.

I. ERANSKINA

I. ERANSKINA / ANEXO 1

AMORRUAREN AURKAKO KONTROLA / CONTROL ANTIRRABICO

1.- PERTSONA HOZKATUA / PERSONA MORDIDA

| | | |
|--------------------------------------|---|--------------------|
| Izen-Abizenak / Nombre y Apellidos | | NA / D.N.I. |
| Adina / Edad | Lanbidea / Ocupación | Tel. |
| Helbidea / Domicilio | | Herria / Municipio |
| Hozkadura Eguna / Fecha de mordedura | Hozkadura zein herritan izan zen / Municipio en que se produjo la mordedura | |

2.- PERTSONA HOZKATUA AZTERTU DUEN OSASUN ZENTROA / CENTRO SANITARIO QUE HA ATENDIDO A LA PERSONA MORDIDA

| | | |
|-----------------------------------|--------------------|------|
| Osasun Zentroa / Centro Sanitario | | |
| Helbidea / Dirección | Herria / Municipio | Tel. |
| Medikua / Médico | Eik. zk. / N° Col. | |

3.- ANIMALIAREN DATUAK / DATOS DEL ANIMAL

| | | | |
|----------------------|---------------------------------|---|---------------|
| Jabea / Propietario | | NA / D.N.I. | |
| Helbidea / Domicilio | | Herria / Municipio | Tel. |
| Espezia / Especie | Identifikazioa / Identificación | Izena / Nombre | Arraza / Raza |
| Adina / Edad | Sexua / Sexo | Erantzukizun zibileko aseguru / Seguro de responsabilidad civil | |

4.- ALBAITARI ARDURADUNA / VETERINARIO RESPONSABLE

| | | | |
|------------------------------------|--|--------------------|------|
| Izen Abizenak / Nombre y Apellidos | | Eik. zk. / N° Col. | |
| Helbidea / Dirección | | Herria / Municipio | Tel. |

5.- SALAKETA JASO DUEN ERAKUNDEA ETA SALATZAILEA / ENTIDAD QUE RECOGE LA DENUNCIA Y DENUNCIANTE

| | | | |
|---|------------|----------------------|------------------|
| Erakundearen izena / Nombre de la entidad | | Helbidea / Dirección | |
| Herria / Municipio | P.K / C.P. | Tel. | Data / Fecha |
| Salatzailea / Denunciante | | NA / D.N.I. | Sinadura / Firma |

II. ERANSKINA

2. ERANSKINA / ANEXO 2

ANIMALIA HOZKARIEI BURUZKO ALBAITARI TXOSTENA INFORME VETERINARIO SOBRE ANIMALES MORDEDORES

Albaitaria / Veterinario:

Elk. Zk / N° Col.:

Helbidea / Dirección: Tel.:

ANIMALIAREN DATUAK / DATOS DEL ANIMAL

| | | | |
|----------------------|---------------------------------|---|---------------|
| Jabea / Propietario | | NA / D.N.I. | |
| Helbidea / Domicilio | | Herria / Municipio | Tel. |
| Espeziea / Especie | Identifikazioa / Identificación | Izena / Nombre | Arraza / Raza |
| Adina / Edad | Sexua / Sexo | Erantzukizun zibileko aseguru / Seguro de responsabilidad civil | |

ZIURTATZEN DUT

Adierazitako animalia behaketa eta zaintzapean eduki ondoren,/...../..... eta/...../..... egunetan aztertu dudala eta ez diodala sumatu amorruren inolako sintomarik eta beraz, behaketa eta zaintza aldia amaitutzat ematen dudala.

CERTIFICO

Que el perro arriba mencionado ha sido sometido a vigilancia y observación y que habiéndolo examinado los días...../...../.....,/...../..... y/...../....., no le he apreciado ningún síntoma que indique que pueda tener la rabia, por lo que doy por finalizado el período de observación y vigilancia.

Tokia eta data / Lugar y fecha:

(Sinadura eta zigilua / Firma y sello)